



# Tolosaldeko 61 eragilek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

**AITORTZA** ▶ «Eguneroko bizimoduan euskarari toki bat egiteagatik» saritu dituzte

**KONTSEILUA** ▶ «Euskararen konpromisoari inoiz baino gogotsuago eustera» deitu ditu ▶ 2



Herenegun jaso zuten Tolosaldeko gizarte eragileek Bai Euskarari Ziurtagiria, Ibarako udaletxean. N. LATABURU

**LEITZA** ▶

## Kubarako laguntza biltzeko aukera

Karrapeko tabernan denda jarri dute herritarrek emandakoarekin ▶ 7

**IBARRA** ▶

## Olinpiada Txikia ate joka

Izen-ematea hilaren 10ean amaituko da ▶ 6

**VILLABONA** ▶

## Eresargiren emanaldia

Elizan eskainiko du kontzertu sakroa ▶ 4

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

## Hilaren 18an hasiko da III. HITZA Argazki Lehiaketa, Aste Santuko oporren irudi onenak saritzeko

Villabonako Bidaide agentziak bidaia zoragarria oparituko dio irabazleari; HITZAko materiala ere zozketatuko da ▶ 3

**TOLOSA** ▶

## Bertako merkataritza sustatzeko hitzarmena sinatu dute

Bost erakundek merkataritza mahaia eratzeko konpromisoa hartu dute ▶ 2

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ▶

# 61 eragilek jaso dute Ziurtagiria eskualdean

Herenegun burutu zen banaketa ekitaldia, Ibarako udal aretoan; helburua «euskararen normalizazioa sustatzea» da

## TOLOSALDEKO BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAK ▶

Guztira, 61 eragilek dute Ziurtagiria Tolosaldean:

### BIDEAN

**Aduna.** Hol-Atz egur tratamendua, Zumeta bizitegia.

**Anoeta.** Bat garajea, Rali neumatikoak.

**Ibarra.** Ganbara (Enseñanza y Venta de Labores), Graficas Ibarra inprimategia, Gurutze karrozeria, Zubiurre taberna, Mendia elektrizitatea.

**Irura.** Caballero aroztegia, Carpinteria Atari S.L., Nekazaritza Egimendi.

**Tolosa.** Aguro reparacion de calzados, Amets taberna, Aralar Kiroiak, Arsuaga bizikletak, Bacalao txiki jai, Berogas langile elkarte S.A.L, Colors, ELA sindikatua, Elite kirolak, Elurra taberna, Enmarcaciones Tuduri, Euskalpizza, H. Cid S.L., Inmobiliaria Dravasa, Ioana Arbillaga podologia zentroa,

Irrinti taberna, Iturralde harategia, Juan Bautista Barriola harategia, Klisk argazki bideoa, La Inmakulada, Laier, Muebles Josherra, Na-Ish, Optika Arotz, Orue erretegia, Sagredo inprimategia, Saldias Migel aseguru artekaria, SAM S.A. de talleres de manipulacion de papel, Santa Lucia, Servigraf offset y digital S.L.L., Solozabal autoeskola, Tindu margoak S.L., Xirimiri, Tolosaldea Igeriketa kirol taldea.

**Villabona.** Bar Argoien, Eizmendi armategia (kirolak), Inmobiliaria Irukide.

### GUZK ZERBITZUA EUSKARAZ

**Aduna.** Andretegi, Sointek, Zabala sagardotegia.

**Amezketia.** Kutxa.

**Anoeta.** Galdi Kooperatiba elkarte.

**Ibarra.** Kutxa.

**Ikaztegieta.** Eskola txikietako

Guraso elkarteon koordinakundea.

**Leaburu.** Mahala esnekiak.

**Tolosa.** Aixa, Bankoa-Credit Agricole, Bilitx megadenda, Ehneler, Eugenio Uranga harategia, Gipuzkoako EHNE, Gipuzkoako ur kontsurtzioa, Hirukide-Eskolapioak, Hirukide-Gainberri, Hirukide-Jesuitinak, Kimetz denda, Kutxa Gorosabel, Lardi-bi harategia, Lizarribar oinetakoak, Meskal, Tolosaldeko Landa garapen elkarte Tolomendi.

**Villabona.** Labezain okindegia, Ogi-Goxo okindegia.

### GUZK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

**Ibarra.** Tolosa Herria Hedabideak S.L., Uzturpe Ikastola.

**Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldea, LAB sindikatua, Laskorain ikastola.



Hainbat eragilek hartu zuten parte ziurtagirien banaketan. N. LATABURU

### NOELIA LATABURU

Tolosaldeko 61 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu dute dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiria. Eta herenegun iluntzean burutu zuen, hain zuzen, banaketa ekitaldia. Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluak, Ibarako udal aretoan. Gizarte eragileen ordezkariekin batera, bertan izan ziren Jarraipen Batzordeko ordezkari Joseba Antxustegietarte, euskalgintzako ordezkari Mila Otamendi, Tolosaldeko udalen ordezkari Marimi Ugalde eta Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendi-guren.

Parte-hartzaile guztiek ere bat egin zuten eragile guztiei beraien lana aitortzen, «euskarari toki bat eginez eguneroko bizimoduaren». Izan ere, Bai Eus-

karari Ziurtagiriaren helburu nagusia «euskararen normalizazioa sustatzea da». «Tolosaldeko udalek ere herritarrok euskararen alde egin duzuen apustuarekin bat egiten dugu eta gure konpromisoa berresten dugu», azaldu zuen Ugaldek, guztioi zorionak emanez.

Lanean jarraitzeko deia egin zuen, bestalde, Xabier Mendi-gurenek, «inoiz baino gogotsuago euskararen konpromisoari eutsiz».

### HITZARENTZAT ere ziurtagiria

Tolosa Herria Hedabideak —Hitzako enpresa argitaratzailea— ere jaso zuen *Guzk zerbitzua eta lana euskaraz* agiria, Uzturpe ikastola, Galtzaundi Euskara Taldea, LAB sindikatua eta Laskorain ikastolarekin batera.

## TOLOSA ▶ EKONOMIA

# Tolosaldeko merkataritza sustatzeko hitzarmena sinatu dute 5 erakundeek

Jokin Bildarratz: «Gure dendak indartsu badaude, herria indartsu egongo da»

### ESTI EZEIZA

Tolosaldeko merkataritza sustatzeko hitzarmena sinatu zuten atzo Tolosako udaletxean. Tolosako Udalak, Gipuzkoako Kamarak, Tolosaldea Garatzen sustapen agentziak, Alde Zaharreko denden elkarteak eta Igarondo elkargoak babes-tu dute egitasmoa. Akordio honenkin, merkataritza mahai bat eratutako konpromisoa hartu dute bost erakunde hauek.

Mahaiaren lana eskualdeko merkataritzak dituen arazoak konpontzea eta ingurua dinamizatzea izango da. Era berean, lan egin zonaldeko erakunde publiko nahiz pribatuekin,

merkataritza enpresen konpetitibitatea hobetzeko, eta trebakuntza bultzatzeko.

Atzokoan, jarrera baikorra erakutsi zuten akordioaren sinatzaile guztiek. Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, prozesu honetarako bi gauza eskatuko dizkie merkatariei: Administrazioari presioa egitea, «modu positiboan, tentsioa behar delako lan egiteko», eta bestetik, sektorea bateraturik egotea. Tolosako alkatearen esanetan, «denek nahi dugu denda txikiak indartsu egotea, gure dendak indartsu badaude herria indartsu baitago». Bestetik, Felix Iraola Gipuzkoako Kamarako zuzendariak es-



Hitzarmenean parte hartu duten bost erakundeetako ordezkariak, sinaketaren momentuan. E. EZEIZA

kerrak eman zizkion Tolosari eta Tolosako merkataritzari egiten ari den lanagatik. Eta gaineratu zuen eskualdeko merkatal zentruak potentzia ekonomiko handia osatzen dutela. Bildarratzek «potentzialitate eta etorkizuna» hitzak azpimarratu zituen.

Sinaduran parte hartu zuten iritziak, atzokoak «hasiera besterik ez da». Hemendik au-

rrerako pausoak hirutan banatuko dira: «konpetitibitatea hobetzea, konpetitibitate hori hobetzeko hirigintza sustatzea, eta merkatal guneak trebatzea edo hezitzea».

### Tolosaldeko merkataritza

Egun, 2.100 lanpostu sortzen dituzten 950 saltoki inguru daude Tolosaldean. Datuen

arabera, hauetako gehienak txikizkariak dira. Merkatal guztiak %22 elikadura, edari eta tabako sektorekoan aritzen dira. Beste %19 ehun eta oinetakoetan. Portzentaia berean, txikizkako salmenta egiten dutenak daude. Beste %11,3 al-tzari eta etxeko sektorean, eta %10,4 mixtoa. Gainontzeko %4,6 drogeria, lurrin-denda eta botikak dira.

III. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

# Edertasuna paperera ekarrita

Hilaren 18an hasiko da III. HITZA Argazki Lehiaketa; Villabonako Bidaide agentziak Aste Santuetako oporren argazki onenari bidaia zoragarri bat oparituko dio



Argazki ederrak jaso ditugu aurreko bi edizioetan; irudian illunabarra ikus daiteke Sondenborg-en (Danimarka). MIREIA ABAIGAR

la zozketatuko da. Tentagarria, ez? Bada, ez galdu aukera hau eta anima zaitzete III. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzera.

Aste Santuetako oporraldia behin amaituta, hilaren 18an, bidal ditzakezue argazkiak. Azken eguna, aldiz, maiatzaren 4a izango da. Horien artean egongo da, hain zuzen ere, irabazlea. Edozein formatutan bidal daitezke argazkiak: paperean, diapositiban edo digitalean. Azken kasu honetan, gutxieneko bereizmena edo kalitatea eskatzen da, argitaratu ahal izateko. Kopuru aldetik ez dago mugarik, nahi adina argazki bidal daiteke lehiaketara. Hori bai, argazki guztiak lehiaketan sartzen diren arren, HITZAK jasotzen dituen lehen 50ak argitaratuko ditu. Haatik, gure webgunean guztiak izango dira ikusgai.

### Irabazlea, maiatzaren 14an

Behin argazki guztiak eskuarte dituenen, HITZAK izendatutako epaimahaia aurkeratuko ditu bidalitako guztien artean zortzi argazki finalistak, eta maiatzaren 7an argitaratuko dira HITZAN bertan.

Ondoren irakurleen txanda iritsiko da, beraiek bere botuen bidez aukeratuko baitituzte zortzi argazki finalista horien artean argazki irabazlea eta maiatzaren 14ean publikatuko da, bere egilearen izenarekin batera. Botoa emateko azken eguna maiatzaren 12a izango da.

Zuek lehiaketara bidalitako argazki horiek egunkarian eta webgunean ikusi ahal izango dituzue. Gerora, HITZAREN artxiboa geldituko dira irudi horiek eta behar dituenen argitaratzeko eskubidea izango du.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAK antolatutako aurreko bi edizioek izandako arrakasta dela-eta hirugarrena abian da dagoeneko. Azken urte honetako asko eta asko izan zarete zuen argazkiak bidali dituzue-nak. Bada, oraingoan ere ez izan dudarik eta bidali azkar zuen aurtengo Aste Santuetako oporren argazkiak. Bidaia zoragarri bat dago zuen zain. Villabonako Bidaide bidaia-agentziaren eskutik.

## III. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

### EPEAK

- ▶ Argazkiak bidaltzeko, hil honen 18tik maiatzaren 4a arte.
- ▶ Maiatzaren 7an aukeratutako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- ▶ Maiatzaren 14an irakurleek aukeratutako argazki irabazlea argitaratuko da. Bozkatzeko epea maiatzaren 12an amaituko da.

### BALDINTZAK

- ▶ Argazkiek Aste Santuko oporretakoak behar dute izan.
- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar

dituzte: 8 zentimetroko zabalera eta 250eko bereizmena.

- ▶ Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazki non eta noiz egin den adierazi beharko da, eta zer ikusten den ere labur idatzi.
- ▶ Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituenen argitaratu ahal izango ditu.
- ▶ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- ▶ Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.

### NORA BIDALI

- ▶ Posta elektronikoa:

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info (lehiaketarako dela jarri).

- ▶ Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa. 20400.
- ▶ HITZAREN egoitzetara ekarri: Araba etorbidea 5, atzea; Tolosa. Herriko plaza, 1; Leitza.

### SARIA

- ▶ Bidaia zoragarri bat oparituko dio Villabonako Bidaide bidaia-agentziak, bi laguntzat, argazki onenaren saria eskuratzen duenari.
- ▶ Gainontzeko partaideen artean HITZAKo materiala zozketatuko da. Botoa ematen dutenen artean ere zozketa zabalak egingo dira.

### NOELIA LATABURU

**E**txean nahiz atzerrian; mendian nahiz kostaldean; banaka nahiz taldeka; guztiak balio du III. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Hori bai, ate joka diren Aste Santuetako oporretako argazkiak behar dute izan. Gaia ere zuek, argazkilariok, aukeratu ahal izango duzue: kultura, ohiturak, gizartea, pertsonak, paisaiak... Askotariko aukerak dituzue argazki ederrinari saria eskuratzeko. Jasotzen duzuen irudi bitxi, orjinal, ikusgarri hori aurkeztera anima zaitzete. Izan ere, sari ederra lor dezakezue: bidaia zoragarri bat, bi laguntzat, Villabonako Bidaide bidaia-agentziaren eskutik. Halaber, parte-hartzaile guztiarentzat, bai eta bozketan parte hartzen dutenentzat ere, HITZAKo materia-

## iragarki laburrak ▶

### LANPOSTUAK

**Laborategiak.** Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.  
**Mantentze-lanak.** Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalbeste eta Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Elbarrituak.** Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak,

haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.  
**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.  
**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.  
**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitze: 943 31 37 82.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritza. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

## ANOETA ▶ MUSIKA

## Javier Sarasak omenaldi beroa jaso du

I. Garcia ▶ Javier Sarasak txistulariari omenaldi beroa egin zioten atzo Anoetako elizan. Loatzo musika eskolako ikasle eta irakasleek, Anoetako Txistulari Bandak eta Aitor Arozena eta Garikoitz Mendizabal txistulariek eskaini zituzten abestiak eta bukaeran denok batera *Gurea da* jo zuten. Omenaldian, Sarasak Loatzo musika eskolaren eta Anoetako eta Irurako udalen opariak jaso zituen. Txistulariak abenduan utzi zuen irakaskuntza, eta atzo hunkiturik jaso zuen lagun eta ikasle ohien omenaldia. I. GARCIA



## VILLABONA ▶

## Gaztetxe Borobila proba gaur, Herri Olinpiadetan

## ERREDAKZIOA

Herri Olinpiaden hurrengo proba gaur dute, 15:30ean. Gaztetxean. Gaztetxe Borobila izena du, eta borobil formako hainbat gauzeekin erabiliko dituzte. Behin-behineko sailkapena horrela doa: Jun da bertan, 20 puntu; Montxinoak, 18; Gaztetxea, 16; Kixbi, 15; Wuitxu, 15; Magazken, 14; Izenikpe, 8; Txintxingo, 7; Z.E., 7; Antitodo, 7; eta Iratzar, puntu 1.

## VILLABONA ▶ MUSIKA

## Eresargiren kontzertu sakroa, gaur elizan

Aste Santuaren inguruan eskaini ohi dutena da emanaldia

## IMANOL GARCIA

Herriko Esesargi abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur arratsaldean. Urtean zehar eman ohi duen kontzertuetako bat da, Aste Santu inguruan egiten duena, hain zuzen ere. Horrela, elizan emango dutena, 19:30ean, kontzertu sakroa izango da.

Obra garaikideak eta XIX. mende amaierakoak ere eskainiko dituzte Villabonako abesbatzakoek. «Kontzertu polita izango da», azaldu du Sofia

Quilez Eresargiko kideak. Abestuko dituzten obretatik aipatzekoa da Alberto Alcarazen *Ecce quomodo moritur Justus* kanta. «Oso abesti sakona da, harritzekoa hain konpositore gazte batek idatzia izateko», dio Quilezek. Hain zuzen ere, obra hori orain gutxi Tolosako Abesbatza Lehiaketan kantatu beharrekoa izan zen.

Aukera paregabea da, beraz, gaurkoa, herriko abesbatza entzuteko eta, bide batez, urtean zehar egiten duten lana eskertereko.

## EGITARAUA ▶

'Jubilate'. Arild Sarvold.  
'Bogoroditze Dievo Raduisia'. Sergei Rachmaninov.  
'Nunc Dimittis'. David Hamilton.  
'Stabat Mater'. Zoltan Kodaly.  
'Ecce quomodo moritur Justus'. Alberto Alcaraz.  
'Ubi caritas'. Maurice Durufle.  
'Ave Maria'. Javier Busto.

## ADUNA ▶ GERTAERA

## Gizonezko baten gorpua topatu dute kamioi batean

Urtarriletik desagertuta zegoen Alejandro Uzkiano billabonatarra dela uste dute

## ERREDAKZIOA

Gizonezko baten gorpua aurkitu zuten herenegun arratsaldean kamioi baten barruan, Adunan. Kamioia N-1 errepidearen ondoko aparkaleku batean aurkitu zuten, Villabonako irteeratik gertu. Urtarrila amaieratik desagertuta

dagoen Alejandro Uzkiano billabonatarra izan daitekeela uste dute, baina Herrizaingo Sailak ez du oraindik informazio hori baieztatu. Ez dirudi, hasiera batean, gorpuak bortizkeri zantzurik duenik, baina hipotesi hori baztertzeko autopsia egin beharra dagoela azaldu du Ertzaintzak.

## ZIZURKIL ▶ ANTZERKI ASTEA

## Astea amaitzeko, Trapu Zaharraren 'Aterpea'

## ERREDAKZIOA

Trapu Zaharra taldeak emango dio amaiera aurtengo Zizurkilgo Antzerki Asteari. Gaur 22:30ean eskainiko dute *Aterpea* antzezlan, Zizurkil Goiko plazan.

Etsita dauden bi pertsonaien egoera kontatzen du

ikusizunak. Bizitzeko beharrezkoa duten etxebizitza da bi pertsonaia horiek elkartzen dituen. Bakotzak bere aurreko urteetan bizi izandakoak larritu egiten ditu. Hori aurre egiteko plan bat burutzen dute eta jendearen partehartzeak imagina ezinezko amaierara bultzatzen ditu.



## Villabona - Kultura



### HAUR ANTZERKIA

## MARKELINE

# "KARTOIBIRAKA"

**APIRILAK 9 ostirala**  
ARRATSALDEKO 17:00etan • GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

AGUSAN-EREN  
JAIETZEN

Gosari bereziak • Kaxuelak  
Ogitarteko bariatuak  
Plater konbinatuak  
Pintxo aukera

OHARRA: menuak enkarguz  
Euskalerrri plaza, 6 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 10 59

## ALEGIA ▶ GIZARTEA

## Haur sahararrak udako garaian etxean izateko

'Oporrak pakean' programaren bitartez Udalak haur baten gastuak hartuko ditu

## ERREDAKZIOA

Euskadiko Fronte Polisarioak, aurreko urteetan bezala, *Oporrak pakean* programa martxan jarri nahi du. Zazpi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak Euskal Herriko familietan uda pasatzea ahalbidetzen du programa horrek.

Alegiako Udalak ume saharar baten gastuak bere gain hartuko ditu; hau da, hegazkinetako txartela (Tindouf-Bilbao-Tindouf), antolakuntza, eta laguntzaileek suposatzen dituzten gastuak.

Haurrek udan, uztaila eta abuztuko hilabeteak, hemen igaro ditzaten eta familiaren bat etxean hartzeko prest da goen jakiteko, deialdi hau zabaldu dute. Familia batek baino gehiagok haur bat etxean hartzeko izena emango balu, zozketa baten bidez aukeratuko litzateke.

Interesa duenak maiatzaren 19a baino lehen Gizarte Zerbitzuetako bulegora deitu behar du. Hauxe da Saharako haur bat etxean hartzeko eskaria egiteko telefono zenbakia: 943 65 47 68.

## BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

## Txekor jaterako txartelak astelehenetik aurrera

Hilaren 30ean pilotalekuan bazkaria egingo dute, jardunaldi berezi bat egiteko

## N. URBIZU

Txekor jatea antolatu dute Baliarraingo herrian. Eguna aurreko bilera batean erabaki zuten eta hilaren 30ean egingo dute, hala. Atari Soro pilotalekuan bilduko dira bazkari-joango direnak, 14:00etatik aurrera.

Antolatzaileek Hitzari jakinarazi diotenez, bazkari-joateko ezinbestekoa izango da txartela eramatea. Astelehenetik aurrera egongo dira salgai, hilaren 24a arte. Egun horretatik aurrera ez da posible izango txartela lortzea. 25 euro balioko du bazkariak, eta Zartagi Jatetxean jarriko dituzte salgai txartelak.

Eguna jai giroan igarotzeko asmoa dute: horrexegatik, 12:00etan lore azoka prestatu dute, udaberriari begira loreak erosi ahal izateko eta Urretabizkaia dendatik (Arama) ekarritakoak izango dira salgai egongo direnak.

Bestalde, Baliarraingo herriar batzuek eskulan ikastaroan egin dituzten lanak ere ikusgai egongo dira, erakusketan moduan jarriko baitituzte bertan. Horrez gain, jai batzordeak antolatutako argazki eta marrazki lehiaketa ere

ikusteko aukera izango da, horiek ere jendeak ikus ditzan kalera aterako baitituzte. Irabazlea ere ba omen dago, eta egun horretan emango dute irabazlearen izena. Beraz, astelehenetik aurrera erosi ahal izango dira txekor jatearen txartelak, eta herriko egun arrunt bat modu berezian igarotzeko aukera paregabea, ez bairrik gabe.

## IKAZTEGIETA ▶ HEZKUNTZA



4, 5. eta 6. mailako ikasleak, *Behin batean Loiolan* abestia jotzen. N. URBIZU

## Jaialdi handia eskolan

Antzerkia, musika eta jende andana izan dira, beste behin

## NEREA URBIZU

Ikaztegieta eskolak aurten ere jaialdi berezia prestatu du: urteko antzerki emanaldia bezala ezagutzen bada ere, musika, antzerkia, nahiz algarak eskaintzen dituzte bertako ikasle guztiek egun berezi honetan.

Atzo, 2 eta 3 urteko ikasleek ekin zioten jaialdiari: *Paristik natorren* kanta eskaini zuten. Ondoren, *Katxiporreta* ere entzun ahal izan zuten ikusleek, 4 eta 5 urtekoen eskutik. Segidan lehen dantza ikusi ahal izan zen eskolako gimnasioan: *bun bun dantzara* izan zen.

4., 5. eta 6. mailakoek, eskola-ko ikasle koxkorrenek, alegia,

*Los chicos del coro* filman agertzen den kantu bat bxitulaz eta kantuaz egin zuten, eta baita *Behin batean Loiolan* abesti ezaguna ere, modu berdinean.

Antzerki bikainak ere ikusi ahal izan ziren: *Txanogorritxo*, Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoek egina, eta beste guztiek, aldiz, *WC*, eta *Gaztarik onenak*, *Arantzazukoak*.

Ikasle hauek ilusio handiz prestatzen dute emanaldi hau, beti Aste Santuko oporren aurreko astean zehar eskaintzeko. Emanaldi hau astelehenean herri batean egiten dute, asteazkenean beste batean eta ostiralean, beti, Ikaztegieta. Aur-

tengo kasuan, Lizartzan eta Abaltzisketan egon dira.

## Duela 20 urteko kontua

Duela urte asko ospatzen dute jaialdi hau, baina lehen urteetan ez zen horrela izan: irakasle batek bere gelan egiten zuen, eta gutxinaka ezagutzera ematen hasi zen, ekinga txiki batekin jaialdi berezi bat eginez.

Prestatu dutena dibertigarria izaten ohi da, baina aurretik asko lantzen dutena da: Gabonon aurretik haur bakoitzari dagokion papera nahiz lana banatzen zaiou, eta martxoan hasten dituzte entsegu gogorrenak.

GURE ESKUBIDEEN ALDEKO KONPROMISO SENDOA  
EUSKAL HERRIA, NAZIOA

APRILAK 16  
ABERRI EGUNA 2006

“Euskal Herriak herri gisa jarduteko eskubidea du, baina herri izateari dagokian eskubide sartzeko erantzukizuna ere du. Herri gisa jarduteko eskubidea du, baina herri izateari dagokian erantzukizuna ere du. Herri gisa jarduteko eskubidea du, baina herri izateari dagokian erantzukizuna ere du.”

IRUÑEAN  
MARTXOAREN 20. EGUNA

UDALBILTZA

## IBARRA ▶ GIZARTEA

# «Herri giroa sortzeko» Olinpiada badator

Hilaren 22 eta 23an eta 28 eta 29an egingo dute Olinpiada Txikia; izena emateko azken eguna hilaren 10a izango da

## ERREDAKZIOA

Urtero legez, aurtengo Olinpiada Txikia ate joka ari da jada. Ate Santuetako oporraldiaren ostean, hilaren 22an eta 23an eta 29an eta 30ean egingo da, herri giroa sortzea helburu duen ekimena. Oraindik bi asteburu geratzen badira ere, hilaren 10a izango da izena emateko azken eguna; beraz, Ibarrrako taldeek eta elkarteek azkar ibili beharko dute. Antolatzaileak, hau da, Hauspoa elkarteak herritar guztiak animatu nahi ditu, «aukera aparta baita bi asteburu giro alai eta jatorrean igarotzeko».

Egun antolatzailea Hauspoa elkarte bada ere, 1993an Jose Ramon Larrañagaren (garai hartan Kultur zinegotzia) gidaritzapean Eusebio Uberetago-



Olinpiada Txikietan, karta jokoetan lehiatzen. HITZA

ena, Julian Urrestarazu, J. M. Arruabarrena eta Manolo Gogortza hasi ziren Olinpiada Txikia antolatzen eta 5-6 urtez aritu ziren. Lehen urteetan arrakasta erabatekoa izan zuen. 15 taldek eman zuten izena lehen urtean, eta 22rainokoa ere izan da talde kopurua. Parte-hartze-

ko ibartarra izan behar zen edo Ibarrekin lotura izan (koardilla, lana...). Bestalde, talde bakoitza 14-15 lagunek osatzen zuten eta kide bakoitzak, gehienez ere, bi probetan harrezakeen parte.

Antolatzaileen talde hura urtarrean hasten zen biltzen zer

egin, nola, zer egunetan eta abar erabakitzeke. Apirila izan da eta da Olinpiada Txikiaren hilabetea, baina gaur egun bi asteburu hartzen ditu eta garai batean bost asteburu ere hartu zituen; izan ere, orduan palan ere aritzen ziren eta hainbeste talderekin pilota partidu asko jokatu behar ziren. Proben haririk tiraka, batzuk finkoak direla esan daiteke, karta jokoak, boloak, toka, eta ibilaldi neurtua, esaterako. Halaber, pala-partiduak, koskol apustua, zaku karrerak, eta sokatira ere egin izan dituzte.

Hauspoak lekukoa hartu zuenean, aldaketarik nabarmenetakoa, iraupenaz gain, azken egunean parte-hartzaileen artean bazkaria egitearena izan zen. Lehen bazkaririk egin gabe sari banaketarekin amaitzen zen; orain, berriz, azken egunean sukaldaritzako proba izaten dela aprobetxatuz, bazkaria egiten dute, eta postrean banatzen dituzte sariak. Sarietan ere izan da aldaketarik; talde irabazleko partaide guztiak jasotzen zuten txapela bana lehen, eta proba bakoitzeko irabazleek ere izaten zuten saria. Orain, aldi, hiru lehen taldeei ematen zaie txapela.

## LIZARTZA ▶

## Haimar Altunak gose greba bertan behera utzi du

Bisiten inguruan eginiko aldarrikapenak onartu dizkietelako utzi dute «borroka»

## ERREDAKZIOA

Meaux-eko presondegian dauden Haimar Altuna Ijurko, Oier Goitia Abadia, eta Ur-tzi Zubizarreta Lizundia euskal preso politikoei aurreko martxoaren 20an hasitako gose greba bertan behera utzi dute. «Aspalditik komunikazio arloan zituzten arazok salazteaz gain, hilero dituzten bi bisita bikoitzak izatean aldarrikatzen zuten» borrokarekin. Hala, gose greba utzi berri dute bisiten inguruan eginiko aldarrikapenak onartu dizkietelako, eta honela hilean hiru bisita bikoitzak izango dituzte, 2 ostiralean eta 1 larunbatetan.

## IBARRA ▶ KULTURA

## Matxinadaren ondoren, akelarrea filmatzera

Sopelan grabatuko dute gaur 'Sua' filmarako Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza elkarteak

## I. TERRADILLOS

Matxinadako eszenak grabatu ondoren, akelarrea irudikatu nahi dute orain Sopelan Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza elkarteak Sua filmarako. Gaur izango da hitzordua, 15:00etan, Ibarrrako plazan, eta Sopelako udaletxe plazan, 17:00etan. 22:00ak bitarte egongo dira grabatzen Meñakoz hondartzan, eta aurrekoan

bezala, lanak amaitu ostean festa berezia antolatu dute bertako baserri batean. Jende guztia animatu nahi dute parte hartzera, eta zalantzarik duenak 652 71 58 00 zenbakira hots egin ahal izango du.

## Festa ahaztezina

Martxoaren 11n Maulen aritu ziren matxinadako eszena grabatzen, eta «sinestezina, eta

ametsetako eguna» izan zela diote Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak. Bazkari ederra egin zuten lehendabizi, eta ondoren Mauleko gaztelu «zoragarrira» joan ziren. 150 lagunetik gora aritu ziren «benetako herri altxamendua» zirudien eszena grabatzen. Estrak «guztiz profesionalak eta paperean erabat sartutakoak» ziren, «eta onena, Euskal Herriko 7 lurraldeetakoak zirela». Grabaketa amaitu, eta poteoa

egin zuten Mauleko herrian zehar, eta «behin gorputza arinduta», Chateau de Libarrenx izeneko mansio «ikusgarrira» joan ziren, bertan «parranda itzela» baitzuten zain. 667 iparraldeko musika taldea, eta ondoren DJ Bull aritu ziren gauean giro alaitzen.

«Asteburu paregabea» izan zen, eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiete hura posible izan zedin lagundu zuten pertsona guztiak.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112))

## Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006970
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa). Pisua Belate Iarream. 75 m<sup>2</sup>.  
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko. 17. 140 m<sup>2</sup>. Garajea aukeran.  
Salgai (Tolosa). Pisua Laramendi kalean. 112m<sup>2</sup>.  
Salgai (Berrobi).  
Pisua, baratza eta txabola. 168.00 euro.  
Salgai (Tolosa). Lokalek, Amaroitz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibilbidean.  
Salgai (Ibarra). Lokala 60m<sup>2</sup>.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Lakorren.  
Alokatzeko (Alegia). Pisua segituan alokatzeko.  
Alokatzeko (Amezketeta). Pisua segituan alokatzeko.  
Alokatzeko (Anoeta). Pisua guztiz prestatua.  
Alokatzeko (Ibarra). Pisua. Julian Gayarre kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokal girotua, Foru kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

## iragarki laburrak ▶

## GALDUTAKOAK

**Txakurra.** Galgo marraduna. Tola izena du. Gaztea. Azkenekoz San Blas auzoan ikusia. 658 70 59 81.

## LANA

**Tabernaria.** Neska bat behar da igandetan tabernan lan egiteko. Telefonoa: 943 65 20 24.  
12:30etik aurrera deitu.  
**Zaintzailea.** Neska bat eskaintzen

da asteburuetan adinekoak zaintzeko, edo edozein lanetarako. 943 65 44 13.

## SALGAI

**Zaldia.** 4 urteko zaldi Burguetea salgai, Aralar mendikoa. Telefonoa: 670 20 85 43.  
**Autoa.** Rover MG ZR. Egoera oso ona. Beti garajea. 105 zaldi. kilometro gubi. 649 54 59 87.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Kubarako laguntza biltzen

Karrapeko tabernan, denda jarri dute herritarrek emandako produktuekin



Oraindik ere jendeak zekarkien materiala zegokion lekuan, sailkatuta jartzen ari ziren Karrapeko denda berezian borondatezko langileak. Muku beteta zegoen. JAIONE ASTIBIA



Prezio sinbolikoan salgai, arropak, ontziak, oihalak, baita drogeriako produktuak ere. J. A.

JAIONE ASTIBIA

**D**enda berezia dago irekita egunotan Karrapeko taberna modura ezagun den aretoan: denetik dago salgai, guztia prezio sinbolikoan, eta txandaka han lanean ari diren lagunek ere borondatez ari dira.

Kubarako laguntza biltzea dute helburu. Herrialde hartan, Los Arabos herriko elizbarrutian moja dagoen Juanita Zabaletak, Errezumeko alaba bera, bideratuko du lortutakoa, oporretara sorterrira etorria baita.

Ekimen honen ideia aurreko aldiaren etorri zenekoa da: «Orduan egokitu zen kinto afari bat deituta zegoela eta han tokatu zirela Junita Irurtia eta bera —moja—; zertan aritzen zen eta horrela hizpidetu eta hara», azaldu zioten HITZARI dendan lanean ari ziren lagunek. Zehaztu zuten, aldi hartan materiala bildu omen zuten, «gauzak eraman ahal izateko, mojak kontainer bat lortu zuelako; baina oraingo txan-

dan ez du halakorik lortzerik izan eta horregatik dirua bidaliko dugun», zehaztu zuten.

Dendan salgai dauden gauzak «herritarrek borondatez emandakoak dira, oso kalitate onekoak eta berriak eta estreinatzeak gehien-gehienak». Eta askotarikoak ere bai. Ikusi besterik ez dago. Ontziak, pitxiak, zuritasunak, sabeak, umeentzat eta batez ere emakumeentzat arropak, barrengo arropak (jatorrizko enbaseetan oraindik)... Denetik dago.

Eta denak prezioz merke: «Ez da duten balioarengatik, baizik eta denerako delako [alegia, laguntza lortzeko] jendeak ordainduko zuen garestixeago ere, baina borondatez emanak izanik, jasotzen den guztia libre gelditzen da, eta prezio sinbolikoan jartzea erabaki genuen».

«Aste Santuko horretara arte behinik behin» irekita egonen omen da «denda» berezi hau. «Jendea gauzak ekarri eta beste batzuk erosita joaten da, hala, bi aldiz laguntzen du». Elkartasunaren borondatea.

JUANITA ZABALETA ▶ ERREZUMeko MOJA KUBAN

## «Batez ere jendearekin bizi egiten gara»

71 urte ditu. Begietatik operatu berria, Valladoliden (Espainia) egoten den bere beste ahizpa mojarrengandik ailegatu berria izanik, bere sortetxean dago egunotan Juanita Zabaleta: 17 urte zituenez geroztik, Santo Domingon, Venezuelan eta azken 7 urteak Kuban daramazkin Errezumeko moja. «Batez ere jendearekin bizi gara», ondorioa ateratu dio HITZARI.

**Los Arabos herrian zaude. Zer lan egiten duzu?**  
Gure kongregazioan 8 herritako gaixoei bisitak egin eta arreta eskaintzen diegu; eta presoen senitartekoei lagundu eta hauen bidez presoek ere, guk ezin ditugunez bisitatu.

**Zer motatako laguntza ematen diezue?**

Arropa, batzutan janaria, baina



batez ere garbitasuneko elementuak, sabeak eta detergenteak. Eta gero, jendea hitz egitera etortzen da, asko, arazoez hitz egin eta hitz egin: 3. munduan baino okerrago bizi dira. Lasaituta joaten dira.

**Lortuko den laguntza hau?**  
Han, *tremenda fiesta*. ◀

KULTURA ▶

## Euskal kantu jaialdiaren azken saioa igandean dute

Eskualdeko bakarlari eta talde banak parte hartuko dute Iruñeko Gaiarre antzokian

J. ASTIBIA

Igandean egingen dute Nafarroako Euskal Kantuen Jaialdiaren bukaerako saioa. Iruñeko Gaiarre antzokian izanen den ekitaldia 11:00etan da hastekoa. Hantxe izanen dira Leitzaldeko ordezkariak ere: bakarlari gisa ariko da Garazi Erbiti, *Baldorba* kantua erekin; besteak taldean ariko dira, *Bizitzarekin dantzari* eskainiko dutelarik, ahotsak ez ezik tresnak ere beren eskuz joko dituztelarik.

Hauekin batera, azken kantu jaialdi honetan lekuzlekuko aurreko kantaldietan parte hartu duten Nafarroa osoko haurrak izanen dira kantari. 14 herritakoak: Lantzaratik Zintzonikora, Beratik Tuterara, hauek *Aberriarren mugak* kantua erekin, esate baterako. «Egunerokoa, oso errealitate desberdinean bizi diren haurrek elkar ezaizteko aukera izanen dute, baina oso garrantzitsua izanen da ikustea eta erakustea denak ere zera oso eta bakarrekoak garela», nabarmendu dio HITZARI jaialdiaren antolatzaileetako batek, Oskar Estangak, kantuzalea bera.

Orotara, jaialdiaren 58 partaide izan dira. Hauetatik 22k kantatuko dute bukaerako saioan: «Lehia kutsua kenduz, baina afinazioa edo interpretazioa moduko irizpide batzuen ariara, aditu talde batek egindako halako sailkapen baten ondorio dira», zehaztu du. 6tik 15 urte bitarteko umeak kantari Gaiarren.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira [tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo)

urteurrena ▶

Lehenengo urtebetetzea  
**Pedro Aramendi Segurola**

2005eko apirilaren 11n hil zen. Azpeitian, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golien bego—



Haren anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela BIHAR, IGANDEA, eguerdiko HAMABI ETA ERDIETAN, Azpeitiko SOREASUKO SEBASTIAN DEUNAREN parroki elizan, egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIAN, 2006ko apirilaren 8an



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 8a, larunbata ▶ IV. urtea

**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Zizurkil.** *Aterpe* obra, Trapu Zaharra antzerki taldearen eskutik. 22:30ean, Zizurkil Goiko plazan. Antzerki Astearen barruan.

**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Eskola Kirolaren Eguna, 09:30ean hasita, Pello Errota eskolan. Zizurkil-Asteasu futbol partidaz gain, beste kirol batzuk ere egingo dituzte: atletismoa, boleibola...  
**Leitza.** Gazte Topagunearen aurkezpen-afaria. 20:00etan, Aurreran, bideo emanaldia; 22:00etan, afaria, Torrean.  
**Leitza.** Aurrera K.E. futbol taldearen omenaldia zendutako jokalariei. 17:00etan, omenaldi ekitaldia; 17:30ean, hiru belaunaldien arteko partida; 21:30ean, herri afaria.  
**Villabona.** Herritar guztiei zabalduko bilkura deitu du Batasunak egoera berria aztertzeko. 10:30ean, Gurean.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Iker Goenaga zizurkildarrak *Amorrua* bere disko berria aurkeztuko du. 22:30ean, Bonberenean.  
**Tolosa.** Musika Bandaren eta dultzainarien kontzertua. 19:00etan, musikariak, dultzainariak, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran abiatuko dira, Triangulotik Plaza Berriraino. Han izango da entzungai kontzertua, 19:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Ollarrea, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinaren elkarrizketak, Mundurako leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

**Goiko irratia (107.0 FM)**  
13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Tiralari trebeak

**IBARRA ▶** Izaskundarrak eta Ibarra sokatira taldeak lehen eta bigarren sailkatu dira, hurrenez hurren, Oiartzunen jokaturako Soka Egunean



Ibarrako sokatira taldea, tiraldi batean, Oiartzungo Elorsoro kiroldegian. Bigarren postuan sailkatu ziren, Izaskundarrak herrikideen atzetik. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**S**asoiko daudela erakutsi dute, beste behin, Ibarra sokatira taldeek. Joan den asteburuan Soka Eguna antolatu zuen Gipuzkoako Euskal Kirol eta Joko Federazioak Oiartzungo Elorsoro kiroldegian. Eta Izaskundarrak eta Ibarra taldeak izan ziren lehen eta bigarren, hurrenez hurren, gizonetako mailan. Biek 9 puntu lortu zituzten, baina batutako denboran aurretik sailkatu ziren Izaskundarrak; 9'48" egin zuten hauek, eta 12'00" Ibarra taldeak. Girizia (6 puntu), Urnieta (4), Astigarraga (2) eta talde mistoa (0) sailkatu ziren atzetik.

Antolatzaileen iritziz, aurreikusitako parte-hartzea eta helburuak bete dira: «Izan ere, ekitaldi garaian orokorrean giro ona izateaz gain, ondorengo afarian ere giro aparta somatu zen guztien artean. Elkar ezagutzeko aukera ongi baliatu zutela esan daiteke, eta aurrerantzean harremanetan jartzeko konpromisoak hartu zituzten». Sokatira sustatzeaz gain, elkar ezagutza bultzatzeko ere balio izan du, beraz, Soka Eguna.

**SAILKAPEN NAGUSIA ▶ EMAKUMEZKOAK ETA GIZONEZKOAK**

EMAKUMEZKOAK			GIZONEZKOAK		
Taldea	Puntuak	Denbora	Taldea	Puntuak	Denbora
1. Mutriku	4	4'42"	1. Izaskundarrak	9	9'48"
2. Girizia	0	0'00"	2. Ibarra	9	12'00"
			3. Girizia	6	7'11"
			4. Urnieta	4	3'39"
			5. Astigarraga	2	2'41"
			6. Talde mistoa	0	0'00"

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Eva eta Dani (Tolosa). Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Maddi (Ikaztegieta).  
7 mnxu potolo eteko pottolinizat.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea